

# Charles S. Peirce eta euskara

Jaime Nubiola eta Ainhoa Marin  
([jnubiola@unav.es](mailto:jnubiola@unav.es) eta [ainhoamarin@gmail.com](mailto:ainhoamarin@gmail.com))

"Basque I have dipped into otherwise"  
C. S. Peirce, *Letter to Lady Welby*, 1909ko urtarrilaren 3lean<sup>1</sup>

Charles S. Peirce (1839-1914) filosofo eta zientzilari estatubatuarraren *Artikulu eta hitzaldien bilduma* bikaina 2005ean plazaratua izan zen Klasikoak argitaletxearen eskuz ospe handiko euskal erakunde akademiko zein ekonomikoen babespean. Liburukia Indianapolisen finkaturik dagoen Peirce Edition Project erakundeko zuzendaria den Nathan Houseren hitzaurrea zeraman. Bertan, autore honen lanbide-irudia eta pentsamendua bere ildo orokorretan era oso egokian adierazten zen. Argitarapen horretan, ordea, Peirce eta Euskal Herriaren arteko harremanari eta honek euskal hizkuntzarekiko izandako hurbilketa interesgarriari buruz ez zen inolako aipamen berezirik egiten.

Artikulu honen helburua hutsune hori betetzea da gai honi buruz autorearen eskuizkribu eta argitaratutako obren artean biltzeko gai izan garen informazioaren berri emanez. Asmo honekin, idazlana honako eran antolatutako dago: 1) C. S. Peirceren bidaia Espainiara eta Euskal Herrian zehar izan zuen ibildibea; 2) Peirceren aipamenak euskarari buruz; 3) XIX. mendeko hizkuntzalaritzari buruzko teorien testuingurunea; 4) Erabateko balorazioa.

## 1. C. S. Peirceren bidaia Espainiara eta Euskal Herrian zehar izan zuen ibildibea

Charles S. Peirceren irudiak garrantzi handia hartu du jakituriaren arlo oso ezberdinetan<sup>2</sup>, eta bere eraginak handiagotzen dirau argi eta garbi: astronomian, metrologian, geodesian, matematikan, logikan, filosofian, zientziaren teoria eta historian, semiotikan, hizkuntzalaritzan, ekonometrian eta psikologian. Arlo hauetan guztietan, Peirce aitzindaritzat, aurrelaritzat, edota "sortzaile" edo "fundatzaile"-tzat daukate (semiotikarena, pragmatismoarena). Ohikoa da egindako balio-neurketa orokorren artean Russellek esandakoaren antzekoak topatzea: "zalantzarik gabe (...) XIX. mende bukaerak izandako adimen originalenatarikoa izan zen, eta ziur, garai guztietako pentsalari estatubatuar handiena"<sup>3</sup>, edo Umberto Eco esandakoaren itsurakoa: "Peirce mende aldaketaren filosofo amerikar handiena izan zen eta, inolako zalantzarik gabe, bere garaikideen arteko pentsalari handienatarikoa"<sup>4</sup>. Baita Popper-ek ere Peirce "garai guztietako filosofo handienatariko bat"<sup>5</sup> bezala deskribatu zuen.

<sup>1</sup> HARDWICK, C. "Semiotic and Significs: The Correspondence between Charles S. Peirce and Victoria Lady Welby", *Indiana University Press, Bloomington, IN, 1977*, 96. or. Aurrerantzean [SS].


<sup>2</sup> Cf. FISCH, M. "The Range of Peirce's Relevance", *The Monist* 63 (1980), 269-76; 64 (1981), 123-41 or.

<sup>3</sup> RUSSELL, Bertrand. "Wisdom of the West", Garden City, New York: Doubleday, 1959, 276. or.

<sup>4</sup> ECO, Umberto. "Introduction", *C. K. Ogden eta I. A. Richards-en, The Meaning of Meaning*, 4. ed., San Diego, CA: Harcourt, 1989, x-xi or.

<sup>5</sup> POPPER, Karl. "Objective Knowledge: An Evolutionary Approach", *Oxford: Clarendon Press, 1972*, 212 or.

Peirceren pentsamenduarekiko dagoen interesaren handiagotzea —euskarazko edizio berria honen erakusle argia izanik— honako faktoreetan datza: bere garaiko erkidego zientifikoan partehartzea, Kanten filosofian eta tradizio eskolastikoan zuen ezagupen sakona, Duns Escotori buruz zehazki, eta ikerketa zientifikoaren metodologiari jarri zion arreta nabaria. Egokia da —Hookwayri<sup>6</sup> zentzu batean jarraituz— Peirce filosofo tradizional eta sistematikotzat hartzea; baina aldi batean zientzilari eta pentsalarien nazioarteko erkidegoan logiko eta ikertzaile bezela izandako baliodun esperientzia pertsonaletik, zientziaren, egiaren eta ezagupenaren arazo modernoei heltzen dion pentsalaria dugu. Peirce bene-benetan ulertzeko ordea, ezinbestekoa zaigu kontutan hartzea, filosofo eta logikoa izan arren, lehenik eta batez ere, bai bere hezkuntzari zein bere ibilbide profesionalari dagokionez, zientzilari bat zela.



Peirce Cambridge, Massachussets-en jaio zen 1839an, Benjamin Peirce, astronomo eta matematikari ospetsuaren semea zen. Harward-en bere ikasketak amaitu ondoren, *U. S. Coast Survey*-n laneratu zen, non, aitaren gainbegirapean, 1870eko ekainatik 1871ko martxoarte Europara bere lehen bidaia egin zuen. Bidaia hark izandako inguruabarrek bere interesak eta bere izaera intelektuala argi adierazten dituzte. 1869an Kentuckyn abuztuaren 7ko eguzkiaren erabateko eklipsea aztertzen zuten lantaldeetako batean parte hartu zuen. “Izadiaren gertakari guztien artean —idazten zuen Peircek hogeita bost urte ondoren (CN 2, 59)— eguzkiaren erabateko eklipsea da berdingabeko gorenena”. Teleskopioaren bitartez aztertutako eguzki koroa bere irtengune guztiekin eta espektroskopiaz sumatutako helioa, amerikar astronomoak eguzkiaren egituraz teoria berriak formulatzera eraman zituen. Teoria berri horiek europar lankideen artean nolabaiteko eszeptizismoarekin jasoak izan ziren.

XIX. mendean beste aukera egokirik egongo ez zenez, Benjamin Peircek, *Coast Survey*-ko Gainintendente izanik, 1870eko abenduaren 22an izango zen eguzkiaren hurrengo erabateko eklipsea mediterraneoko itsasganean aztertuko zuen espedizio baten antolakuntzarako Kongresuaren dotazio bat jaso zuen. Espedizio honen arrakasta ziurtatzeko,

---

<sup>6</sup> HOOKWAY, C. “Peirce”, *Londres: Routledge & Kegan Paul*, 1985, 1-3 or.

bere semea zen Charles Europara bidali zuen sei hilabete lehenago prestakuntza bete behar guztiak burutu zitzaizkion. Ekainaren 18an Charles New Yorketik itsasontzian irten zen Londreseruntz. Londresen De Morgan matematikariarekin elkarrizketa bat izan eta beste bete behar batzuek arduratu zuten. 1870eko uztailaren azken astean Londresetik ekialderuntz irten zuten. Peirce Rotterdam, Berlin, Dresde, Praga, Viena eta Pest-eko hirietatik pasa ostean, Konstantinopolisera iritsi zen, gero ekialdetik mendebalderuntz eklipsearen inguru osoa ibiliz behategi izateko leku aproposenak bilatzeko asmoz. Turkia, Grezia, Italia eta Espainiara bidaiatzen du kokaleku hobereenen bila aitzak zuzentzen zuen espedizio zientifikoaren arrakasta ziurtatzeko asmoz.

Italian kokaleku bat aukeratu zuen Sizilian, eta urriaren 28an Florentzia utzi zuen, “espainiar zirkun-zarkuna”<sup>7</sup> bezela izendatu zuenari hasiera emateko. Peircek Espainian izan zuen egonaldia buruz eskuragarri dauden datuak oso zatikaturik daude oraindik: bi aste baino gutxiagoko bidaiak da, azaroaren 15erako Grenoblen baitago. Ziurrenik azaroaren lehen egunetan itsasontziz Andaluziako hegoaldera iristen da. Bidaiak guztia, nonbait, trenegaz egiten du Espainia aldetik iparralderuntz; Malaga, Sevilla, Cadiz, Madril eta Irun zabaleko trenbide sareaz elkarloturik baitaude<sup>8</sup>. Irunetik 13an edo 14an pasa zelako ustea oso ahalgarria da, Europan zehar izandako bere bidaiak luzean entzun dituen hemezortzi hizkuntza ezberdinak zerrendatzen dituenean, euskara, hain zuzen, zerrendatzen duen hemezortzigarrena baita, ijituera eta espainieraren ondoren. Sukar izurria zela eta, ezin zitekeenez Madrildik Vienara Bartzelonatik joan, dirudienez Peircek Frantziara itzultzeko bidea Irungo muga zeharkatuz, eta bertatik Narbona eta Grenobleruntz jarraituz egitea erabaki zuen. Are gehiago, Peircek zerrendaturiko hizkuntza guztiak –malaysiarra izan ezik- ohikotasunez erabiltzen diren lekuetan entzun dituela zehazten du:

European nagoenetik gutxienez hemezortzi hizkuntza guztiz ezberdinak entzun ditut. 1 ingelera 2 neerlandera 3 alemaniera 4 bohemiera, hizkuntza oso berezia 5 hungariera 6 berdinki berezia nahiz bohemierarekin harremanik ez izan 6 eslaviarra 7 valacoa 8 turkiera 9 arabiera, guztietatik artikulatu gabekoena 10 pertsiera 11 armeniera 12 grekera 13 malaysiarra, guztietatik goxo eta musikalena 14 italiarra 15 frantsesa 16 espainiera 17 ijituera 18 euskara, munduko beste inolako hizkuntzekin harremanik ez duena. Malaysiarren salbuespenaz gain, hizkuntza hauek ohikotasunez hitz egiten diren lekuetan egon naiz. Espainiarrek ahoan harriak balituzte bezela hitzegiten dute, beraz ez da batere erraza haien soinuen ezberdintasunak bereiztea<sup>9</sup>.

## 2. Peirceren aipamenak euskarari buruz

Peircek 1870eko bere bidaietan Irunen entzundako euskara<sup>10</sup>, zein beste inolako hizkuntzekin harremanik ez zuela iruditu zitzaiona, bere idazkietan zenbait aldiz agertzen da, batez ere 1900etik aurrera. Lady Welbyri zuzendutako eskutitz batean ageriko ustegabeko iruzkin baten arabera, badirudi bere bizitzaren azken urteetan nolabait euskara ikasi zuela. Honako hau idatzi zuen (SS 95-96, 1909):

Nire hizkuntzaren gramatika, esatea ez da beharrik ere, era orokorrean gramatika latineraz moldeaturik zegoen, gramatikari buruzko ideia gehienak gaur egunerarte diren bezalaxe. Bereziki, hizkuntzaren latinerazko zatiak nituen, eta inoiz ez zitzaidan bururatu, latineraz ez bezala, beste era batekoak izan zitezkeenik. Horrez geroztik, Testamentuak hizkuntza ezberdinetan erosi ditut, zuluera, dakoteran,

<sup>7</sup> "I left Florence on this Spanish hurry-scurry October 28th" L 687, Chambéry, 16/11/70.


<sup>8</sup> Cf. WAIS, F. "Historia de los ferrocarriles españoles", *Editora Nacional*, Madril, 2. ed. 1974, 177. or.

<sup>9</sup> Bere amari, Sara Mills Peirce, 1870eko azaroaren 16an zuzendutako eskutitza, L 687.

<sup>10</sup> Testu honetan "euskara" terminoa Peircek, XIX. mendeko ohituraren arabera, erabiltzen duen "Basque" (edo batzuetan "Bask") itzultzeko erabiltzen da.

hawaieran, jagalueran, magiareran (*euskaran beste era betean sakondu dut; eta arabiera pixka bat ikasi nuen, Konstantinopolisen eta gero Cambridge-en ezagutu nuen Edgard Palmeren eskuz*). Ikerketa hauek hizkuntzari buruz orokorrean ditudan ideietan sakontzen asko lagundu didate, baina ez didate idazle ona bilakatu, nire pentsatzeko ohiturak ez baitira jende gehientsuenak dituenak bezelakoak, oso ezberdinak baizik<sup>11</sup>.

Euskara, hizkuntza ezberdinetako lehen hamar zenbakien izenen zerrendetatik, lauretan agertzen da (*EI 1248, 1249, 1251 y 1590*), eta aipatuko ditugun interes handiko beste zenbait pasartetan ere agertzen da. Lehenik eta behin, oraindik zenbakiei dagokionez, euskara kaukasiko eta bantueraren artean azaltzen da hamarkadaka zenbatzen duten herrialdeen zerrenda luze batean (*NE I, 241; EI 53, c.1912?*). Edward S. Holdenri 1900eko urtarrilaren 5ean zuzenduriko eskutitz batean ere euskaldunez mintzatzeko da, non argitaletxe jakin baterako (*American Book Company*) europear guztiak, hungariarrak, finlandiarrak eta euskaldunak izan ezik, antzinako arioen seme-alabak direla esan behar dela diotela aipatzen duen (*L 200*).



Baina badago askoz ere garrantzitsuagoa den gauza bat. Peirceri euskararen ikaskuntzak, honek grekera eta hizkuntza erromanikoekiko daukan berezitasuna agertarazi dio. 1902ko *Syllabus* pasartea transkribatzea (*CP 2.328, 1903*)<sup>12</sup> merezi du:

<sup>11</sup> Charles S. Peircek Lady Victoria Welbyri 1909ko urtarrilaren 31ean zuzenduriko eskutitza. Etenaldiaren letra etzana gurea da.

<sup>12</sup> "Any symbol which may be a direct constituent of a proposition is called a term (terminus, Boëthius). The logicians usually say that a categorical proposition has "two terms," its subject and its predicate, wherein, by a carelessness of expression, or by copying Aristotle, they stumble upon the truth. Their usual doctrine is (though often not directly stated in one sentence), that such a proposition has three terms, the subject, predicate, and copula (Abelard). The correct designation of the subject and predicate, in accord with their doctrine, is the extremes, which is translated from the same Greek word as term ({horos}). The ordinary doctrine makes the copula the only verb, and all other terms to be either proper names or general class-names. The present author

Hizkuntzen gehiengo nabari batean, ez daude ez motako izen orokorrik ezta aditz baten zatitzat hartzen ez diren izenlagunik ere (nahiz aditz berebera ez existitu ere), ondorioz, hizkuntza horietan esaldiak eratzeko ez da lotura egiten duen inolako kopularik behar. Autore honek (hizkuntzalari bat izateko asmorik gabekoa) hizkuntza askotako gramatikak ikustatu ditu, logikoeek beren bidetik baztertzen direnean gizaki guztiok pentsatzen dutena adierazteko era berberan eratuta dagoen hizkuntza baten bila (nahiz ez egin [pentsatu], honek ez bait du logikarekin inolako zerikusirik). Aurkitzeko gai izan naizen halako hizkuntza bakarra euskara da; dirudenez bi edo hiru aditz besterik ez dituena, eta gainontzeko hitz nagusiak izentzat hartzen dira. Hizkuntza orok izen bereziak izan behar ditu, eta izen berezi batean ez dago inolako aditzik tartekaturik. Hori dela medio, badirudi badagoela hor benetako izen arrunt edo izenlagun baten zeinu zuzen bat. Dena den, iradokizun honetaz gain, gizakien orokortasun handiena hitz orokorrek aditzen zati balira bezala pentsatzen ditu. Honek, logikoen psikologia gezurtatzen duela dirudi.

Beste eskuizkribu batean antzeko zerbait idatziko zuen Peircek 1903ko urte berberan (*EI* 517, *NE* 4, 245):

Semitar hizkuntzetan eta guzti, nabarmenki ariar hizkuntzaren antzekoak direla, izen arruntak adizkitzat hartzen dira eta izen berezietaz guztiz ezberdindurik daude. Termino baten ikusmolde arrunta ordea, terminoaren zentzu sakonenean izen arrunta izatea suposatzen du. Nahiko arraroa da ikusmolde arrunt honetarako laguntza bila aztertu ditudan hizkuntza guztien artean, euskara bezain hizkuntza harrigarri bat izan dela aurkitu dudana bakarra, logikoen ustez izaki arrazoidun guztiek pentsatu behar duten eran eratuta dirudiena.

Jakina den bezala, Erdi Aroko logikoeek normalean proposizioak terminoen konbinazioa bezala ulertzen zituzten, subjektu terminoa eta predikatu terminoa “izan” aditzaz loturik, aditz arruntak termino sustantibatu batean barneraturik desagertzen ziren bitartean. Hau da, logika eskolastikoak “Juan jolasten du” proposizioa “Juan jokalaria da” bezala ulertzen du, eta honetan euskara –iradokitzen du Peircek- Erdi Aroko logikoen estrategiara ondo egokitzen den hizkuntza bakarra da. Urte hauetan Lady Welbyrekin izandako posta-trukean honakoa adierazten du:

Ez dut uste izen arrunta beharrez hizkuntza baten funtzeko zatia denik. Izatez, hizkuntza arioan eta euskaran soilik hizkuntzaren zati ezberdindu bat bezala guztiz garatuta dago, eta, agian, hor nonbaiteko beste hizkuntza baten batean ere (*CP* 8.337, *SS* 33-34, 1904ko urriaren 12an).

Eta, 1906ko martxoaren 9ko eskutitzan honakoa eranstean du:

Sintetikoak ez diren hizkuntza gehienetan ez daude izen arruntak guztiz garaturik, eta euskara bezalako hizkuntza bat (aditz oso gutxi dituena) oso arraroa da (*SS* 198, 1906).

Peirceren logikaren aljebra unibertsean ez dago izen arruntik, *rema*-k baizik, *rema* ez egiazkoa, ez faltsua den edozein zeinu da. 1905eko idazlan batean honakoa azaltzen du:

Baina, ez ingelera, ez Posen mendebaldean hitz egiten diren hizkuntzak [?] (euskarak gutxiena), ezta

---

leaves the is as an inseparable part of the class-name; because this gives the simplest and most satisfactory account of the proposition. It happens to be true that in the overwhelming majority of languages there are no general class names and adjectives that are not conceived as parts of some verb (even when there really is no such verb) and consequently nothing like a copula is required in forming sentences in such languages. The author (though with no pretension to being a linguist), has fumbled the grammars of many languages in the search for a language constructed at all in the way in which the logicians go out of their way to teach that all men think (for even if they do so, that has really nothing to do with logic). The only such tongue that he has succeeded in finding is the Basque, which seems to have but two or three verbs, all the other principal words being conceived as nouns. Every language must have proper names; and there is no verb wrapped up in a proper name. Therefore, there would seem to be a direct suggestion there of a true common noun or adjective. But, notwithstanding that suggestion, almost every family of man thinks of general words as parts of verbs. This seems to refute the logicians' psychology" (*CP* 2.328, 1903).

latinera ere, ez daude inolaz ere egokiturik *rema*-ren berezko izaera argi adierazteko. Antzinako egiptiar hizkuntzara jotzeak irakurlea galerazi dezake; eta idazle honek, hizkuntzalaritzan ibilia ez dena, agian ez da txinera ikasteko gai garaiz hurrengo alerako [aldizkari batena?]. Baina badago “Grafiko existentzial”-en sistema...(EI 280, 20, 1905)

Zentzu batean, Peircek euskararen kontrako adibidea den Egiptoko egitura kontzeptuala eredu moduan hartzen du bere grafiko existentzialetarako. Bere *Minute Logic* 1902-1903ko bigarren kapituluaz kontserbatzen diren zirriborroetatik, hirutan euskara eta beste hizkuntzen artean konparaketa bat egituratzen du: txineraren eta Malaysiarraren antza du, aditz gutxi izan arren, aditz hauek denborak dauzkatelako; “euskara eta Adelaida hizkuntza edo tibetanoaren artean dozena eta erdiko antzekotasunak” badaudela adierazten du (EI 247, II 256), eta euskal ablatiboa zelden genitiboarekin harremandu ondoren honakoa eranstean du<sup>13</sup>:

Nabari daiteke, euskaldunek, bere hizkuntzarekin batera, munduko zailena eta faktikoena, dirudienez tibetanoeraz edo txineraz beste ezaugarri bat jarauntsi dutela: biziki jeloskorak izatearena erbesteko eraginean aurrean, honek euren hizkuntza milurtekoz milurtera babestu du. Egia da antzeko zerbait ikus daitekeela hungariarretan, eskoziarretan, eta iparraldeko eta Asia gainaldeko beste zenbait herrialdetan. Agian, euskaldunengan izaera hain nabarmenki ezberdina ikustarazten didana nire aurreiritzi hutsa da. Louis Lucien Bonaparte printzeak, hizkuntzalaritzan ezagupen ikaragarriak zituenak, eta bereziki euskararen autoritate handia, ez bazen handiena, hizkuntza hau finlandiera, samoyedera, turkera, manchuera, mongolera, yukatera, tamaliera, georgiera, leshianera eta berak aipatzen ez dituen beste hizkuntza batzuekin batera taldekatu zuen.

Zalantzarik gabe deigarria da Peircek hizkuntzen sailkapen genetikoari jarri zion arreta, eta bereziki, bere euskararen berezitasunarekiko aurreiritzia deitzen duena. Peircek euskara aipatzen duen azken testua 1911koa da. Bere heriotza baino hiru urte lehenagokoa. Bertan, berriz ere, euskarak hizkuntza semitikoekin konparatuz daukan sustatibazio gogorrean jartzen du arreta. "*A Logical Critique of Essential Articles of Religious Faith*" (EI 852, 1911) argitaratugabeko eskuizkribua hain zuzen, honela bukatzen du:

Metafisiko zaharren adimenean, Spinoza bezalakoa, Sustantzia bere akzidenteez, akzidentek Sustantziarekiko baino independenteagoa den ideia dago. Baina, mamurtzen dudanean ezin dugula bururatu Sustantzia bere akzidente guztiez bereizturik, inolako Sustantzian ez dagoen akzidente bat bururatu dezakeguna baino, nahiz azken hau oso bururagarria ez izan, honek Sustantziaren ideia nolabait izen arrunt singularra eta aditzaren arteko ezberdintasunarekin elkarloturik dagoen bereizgabeko ideia dela pentsarazten nau. Baina batez ere gogoan dut badaudela hizkuntzak, semitikoa bezalaxe, non izen arrunt gehienek aditzen zati hutsak dira, eta hizkuntza horiek herri-hizkuntza diren lekuetako pertsonengandik halaxe pentsatuak dira; aldi berean, badaude oso aditz gutxi dituzten hizkuntzak, —euskarak, ustez, hiru bakarrik—ni... [EI eten egiten da]

Azkenik, Peirceren testuen anotazio hauek bukatzeko, 1903ko pasarte baten berri eman daiteke, non euskara silogismo baten adibide gixa aipatzen den. Eskolastikoek *Frisosomorum* deituriko silogismoaren lehen irudiaren forma eta arrazoimenaren ohiko eraren arteko kontrastaketa aztertzeko adibide bat da (EI 693, 312, 1904; HP I, 847):

---

<sup>13</sup> "Putting the subject in the genitive, which came as near to the Basque ablative as any case the Celtic noun afforded. It may be noticed that along with the language, the hardest and most matter of fact in the world, the Basques seem to have derived another Thibetan and Chinese characteristic, that of an intense jealousy of foreign influence, which has preserved their language pure for millenium after millenium. It is true that something like this is seen in Hungarians, Scottians, and other peoples of Northern and High Asia. Perhaps it is only my prepossession which makes me see a distinctly different spirit in the Basques. Prince Louis Lucien Bonaparte, whose accomplishments in languages were stupendous and who was, in particular, a very high if not the highest authority upon Basque, put this language into the same class as Finnish, Samoyerde, Turki, Manchu, Mongolian, Yukat, together with the Tamil, Georgian, //Logic II 258// Lesghian, and others which he does not name." (EI 427, c.1902). 1574 EI -an euskara tartaroera, mongolera eta txinerarekin taldekatzen du.

Honako hipotesian:

Zenbait juglaren euskal hizkuntza ezagutzea eta  
Suaren adoratzaileen artean juglarerik ez egotea;

Nola egon zaitezke ziur

Euskal hizkuntza ezagutzen duen norbait suaren adoratzailea ez izateaz?

Ziur naiz, lor dezakezun ainean, ondorioa atzematen duzula euskara dakien juglare bat irudikatzen, eta suaren adoratzaileen artean juglare ezak, euskaldun hau juglare bat izatetik kanpo uzten duela kontsideratzen. Hau da, irudi batera jotzen duzu eta ez duzu zure arrazoibidea jarraitzen silogistikak eskatzen duen termino orokorretan.

Adibide honekin Peircek askotan, gure arrazoitzeko era, irudimenaren laguntzaz banakako kasuetara jotzea nahikoa izanik, arrazonamendu silogistikoan hain tipikoak diren termino orokorretara ez dela jo beharrik argitzen du.

### 3. XIX. mendeko hizkuntzalaritzari buruzko teoriaren testuingurunea

Peircek bere gramatikaren ideiak latinerazko gramatikan moldaturik zeudela azaltzen du (SS 95-96, 1909). Erdi Aroko eskolastikoen dagoeneko, nolabait, hizkuntza guztiak gramatika berean oinarritzen zirela esan zuten, eta hau, gizakiaren pentsamoldearen arabera. Baina Gramatika Unibertsalaren ideia hau batik bat XVII. mendean plazaratuko zen *Grammaire générale et raisonnée*-en (Arnauld & Lancelot 1660) gramatikagintzaren ondorioz zabaldu zen<sup>14</sup>. Gramatika orokor honen barruan sortu zen hizkuntzalaritzan “Aditz bakarraren teoria”<sup>15</sup> deitu ohi dena, teoria honen arabera aditz sustantibo bakarra kopula da, hots, *izan* aditza, baieztapena edo existentzia adierazten duena; eta gainontzekoak, atributu baten ideiak izanik, ez dira benetako aditzak.

Aditz bakarraren teoriarekin erraz doituko dira euskal aditz analitikoak, non — bereizturik egonda— erraza den perifrasetan lehen zatia den adizki jokatu gabea izen edo izenlaguntzat hartzea. Honela, XIX. mendeko euskalari gehienek, gramatika orokorraren korrantea jarraituz, euskarak *izan* aditza soilik zuela defendatu zuten. Honetarako pentsamolde logikatuak burutu zituzten, euskararen aberastasuna, erregulartasuna eta filosofikotasuna adierazteko. “Aditz bakarra onartu zuten lanek euskal aditzaren azterketa desberdinak proposatu zituzten; hala ere, bazituzten zenbait ezaugarri komun: (a) benetako aditz bakar bat dago; (b) gainerako aditzak ez dira egiazko aditzak, izenkiak + izan (edo \*edun) baizik; beraz, adizki jokatu gabe deitzen ditugunak izenak edo adjektiboak dira; eta (c) adizki trinkoak izenki hauen eta benetako aditzaren urtetik sortu ziren”<sup>16</sup>.

---

<sup>14</sup> Port-Royaleko konbentu-eskola frantzesean egituratutako gramatika hau, gizaki guztion gogoaren funtzionamendu logikoaren izate berdinean oinarritzen zen, eta hizkuntza pentsamolde honen erakusle izanik, gramatikak ere oinarri berdina izan behar zituztela defendatzen zuen. Honela, perpausaren analisisa giza gogoaren eragiketetan oinarritzen du. Lehenik, bururatzearen eragiketan hitzen sailkapena adierazten du: objektuak adierazten duten hitzak eta pentsamenduen forma adierazten dutenak; eta bigarrenik, juzgatzearen eragiketa, gure gogoaren bi ideia elkartu eta baieztatzea dela adierazten dute; kopula izanik bi hauek elkartzeko gaitasuna eta eginkizuna duen bakarra.

<sup>15</sup> Cf. GÓMEZ, Ricardo. “XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak”, *Doktorego tesia-Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 2006, 255-302 or.

<sup>16</sup> *Ibid.*, 340. or.

Egon ziren, ordea, hizkuntzaren estruktura logiko-filosofiko horrek zekarren ikusmoldearen kontrajartzeak ere. Hauek, aditz bakarraren teoriaren kontra, euskaraz edozein hitz aditz bihur zitekeela (hitzari -tzea edo -tu atzizkia erantsiz) argudiatu zuten. Gehiengoek ordea, zelan edo halan aditz bakarraren teoria gramatikoko-filosofiko hau jarraitu zuten. Batzuek euskarak bi aditz, edo bi zati dituen —*izan* eta \**edun*<sup>17</sup>—aditz bakar bat zuela azaldu zuten.

Darrigolek argitaratutako euskal gramatikak, adibidez, (1827), *n(a)iz* eta *dut* aditzak besterik ez daudela esaten du; zein bi eratan erdibituriko aditz bakarra ere kontsideratu baitaiteke: subjektuaren existentzia adierazten edo atributuarekin lutura baieztatzen. “Euskalki gehienetan, bi aditz laguntzaileek (*izan* eta \**edun*) jokatu gabeko forma bakarra baitzuten (*izan* edo *izaitia*), irudi zuen oinarri lexikala bakarra zutela, eta horrek azterketa funtzionalari indarra ematen zion [...] Hain zuzen, Abbadie eta Chaoren azterketak kontraesan hori gaindituko du, aditz laguntzaile bakarra izatean (*izan*) oinarrituz [...] Ideia hori berriz hartuko zuten mendearen erdialdeko gramatikalariek ere, hala nola Inchauspek (1858). Honek euskal aditzari buruzko bere liburu gotorra honela hasiko baitzuen: *La langue basque n’a qu’un verbe. Ce verbe a deux voices: la voie transitive et la voie intransitive* (Inchauspe 1858:1)”<sup>18</sup>.

Oinarri logiko-filosofikoetan eratutako hizkuntza perfektu batek *izan* aditza besterik ez luke beharko, eta hori Derrigolek euskarari aurkitzen duela uste du, berez infinitiboak ez daudelako, izen edo izenlagun deklinatuak baizik. Aurrerago, *Izan* aditz bakarra “baieztapena” edota “existentzia” adierazten duten aldekoen artean Abbadie (1810-1897), Chao (1811-1858) eta Azkue (1864-1951) ditugu. Abbadiek, adizki guztietan *izan* aditza aurkitzen dela uste du, hau euskararen ezaugarri nagusiatzat hartuz. Baita Azkuek ere, zein bere *Euskal Izkindearekin* (1891) euskararen azterketa logikazaleak erabiltzeko joera hasi zuen, *izan* aditza aditz guztiak jokatzeke beharrezkoa zela uste zuen.

Dagoeneko, Astarloak (1752- 1806) bere Diskurtso filosofikoetan lehen hizkuntza perfektu batek bete beharko zituen ezaugarriak aztertu zituen, eta guztiz euskarak bakarrik betetzen zituela adierazi zuen; beraz, euskara litzateke Astarloarentzat lehen hizkuntza eta “perfektuena”<sup>19</sup>. Euskarazko aditzaren ezaugarritasunen artean halako “perfekzioak” zeudelakoan mintzo da Inchauspe (1857) ere, euskarak beste hizkuntzetan galdu diren lehen hizkuntzaren ezaugarri batzuk gorde dituela dio<sup>20</sup>.

Testuinguru honetan, Bonaparte printzeak (1813-1891) aditz formen artean hierarkia bat ezarri zuen. Eta hauen artean errorik gabeko aditza ikusi zuen. Deigarriena aditz-bukaera hutsak iruditu zitzaizkion; aditzik gabeko aditzak, non gainerako osagai guztien artean aditza sortarazten den. Hau definitzeko hizkuntza metafisikora jotzen du: “Aditz garbi-garbia eskura ezina da guretzat, baina oso bahigarri diren materialen osagaien artean ageri zaigu, eta hauen ondorioa izan barik, hauek menperatzen ditu euren gaitasun guztietan bizitza emanez. Aditza Bizitza da”<sup>21</sup>.

<sup>17</sup> \**edun* antzinean galdutako aditz baten erro hipotetiko da, nondik “eduki eta “ukan” aditza sortu ziren.

<sup>18</sup> OYHARÇABAL, Beñat. “A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza”, *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International (Hendaye, 1997)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza; Bibao, Euskaltzaindia, ISBN: 84-89516-71-5, 1998, 445-446 or.

<sup>19</sup> Cf. GÓMEZ, Ricardo. “XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak”, *ob. cit.*, 5-47 or.

<sup>20</sup> *Ibid.*, 284-287 or.

<sup>21</sup> “Le Verbe pur est pour nous quelque chose d’insaisissable, qui se manifeste toutefois au milieu d’éléments matériels fort saisissables et qui, loin d’être le produit, les domine de toute sa puissance en les vivifiant. Le Verbe c’est la Vie” (Bonaparte 1869:159, aipatua GÓMEZ, Ricardo, “XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak”, *ob. cit.*, 291. or.).



#### 4. Erabateko balorazioa

Ikusi dugun bezala, Peirce baino lehen autore ugari, euskararen gramatikariek, eta filosofoek proposatutako hizkuntza logikoaren perfektzioa ikusi dutela uste izan dute. Peircek euskara “logikoen ustez izaki arrazoidun guztiek pentsatu behar duten erantza erantza” zirudiela idatzi zuen (*EI* 517, NE 4, 245). Ziurrenik bi edo hiru aditz horietan oinarritzen den euskal aditzaren sistemaren logikotasun hura izan zen Peircek jaramon gehien egin ziona. Peircek euskal aditzak txinera eta malaysiarra bezalaxe, nahiz aditz gutxi izan, hauek denborak izatearen ezaugarri berezia dutelaz konturatu zen (*Minute Logic, 1902-1903*). Gainera, arrazoizkoa da pentsatzea Peircek bere ikerketetan ikusi zuela euskal aditzak informazio kopuru nabaria jasotzen zuela bere esanahiak adierazteko duen aditz-joko bakoitzean. Hala eta guztiz ere, bat-bateko aberastasunaz gain, bere ia guztizko erregularitatea eta aditz-joko aldaera guztiak elementu gutxi berdin batzuek eraturik egonda, euskarazko aditzaren bakuntasuna ere ikusi behar izan zuen.

Bestalde, Peircek hizkuntzak zerrendatzerakoan “euskara, munduko beste inolako hizkuntzekin harremanik ez duena” dioenean, nahiz geroago euskara eta Adelaida edo tibetanoen hizkuntzen artean dozena eta erdi antzekotasun zeudela adierazi (*Minute Logic, 1902-1903*), ageria da sailtu zela, bere momentuko ezagupenekin kontrastatuz, halako harreman bat bilatzen. Dena dela, Peircek Bonaparte printzeak eginiko hizkuntza sailkaekta ikasia zuen eta honek beste zenbait hizkuntzarekin taldekatzen duela aipatzen du beti ere (*EI* 247, II 256).

Izan zitekeen Peircek garaiko hizkuntzalariak eratzten ari ziren ideak ezagutzea, batez ere Iparraldeko pentsalarien artekoenak, bertan frantziar tradizioaren eskuz aditz bakarraren aldeko teoria zabaldurik zegoelarik. Ideia honen arabera, euskaldunek ere orokorrean aditz deitzen zieten hitz horiek, berez, aditzak ez zirela kontsideratzen zen. Halaxe Peircek ere berez substantiboak zirela pentsatu zuen. Honela, teoria hori ezagutuz eta euskal gramatikari begirada sakon bat emanez, erraza litzateke euskararen berezko estruktura gramatikala eta Gramatika Orokorraren teoriaren artean egokitze bat ikustea.

Dirudienez, lehenik, euskararen aditz infinitiborik ez zeudela antzeman zezakeen, normaetan infinitibotzat hartzen dena berez partizipio bat da eta. Bigarrenik, Peircek aditz perifrastikoetan jokatu gabeko aditz nagusia (aditzaren esanahia eta aspektua adierazten duena) izena kontsideratu zuen, eta hortik, euskararen “substantibazio gogorra”. Halaxe adierazten du: “dirudienez bi edo hiru aditz besterik ez dituen, eta gainontzeko hitz nagusiak izentzat hartzen dira” (*CP* 2.328, 1903). Hirugarrenik, adizki trinkoa ere, non aditzaren informazio guztia jokaturiko hitz bakar batean bateraturik dagoen, ez zuen aditzat hartu. Agian, berez guztiz ezinbestekoak ez zirela pentsatu zuen, garai hartan euskalari askok bezalaxe, nortzuk esanahia aldatu gabe, era perifrastikoan esan zitezkeela zioten.

Historikoki adizkiera batek bestearekiko zuen nagusitasuna oso eztabaidatua izan da. XVIII. mendetik eztabaidatu da zein den euskarazko modu zaharrena eta jatorrena: XIX. menderarte euskalari gehienek –Larramenditik (1729) hasita- adizki analitikoak, aberastasun eta erregularitasun handiago eskainiz, euskaraz jatorragoa zela pentsatu zuten; adizki trinkoa beranduagokoa, irregularra eta okerragoa kontsideratuz. XX. mendetik aurrera, ordea, kontrakoak diote: modu trinkoa dela “antzinakoena eta jatorrena inolako zalantzarik gabe” (Wilhelm Humboldt 1817 [1933-34: 98]). Honi buruz, Darrigolek trinkoak, beren barnean naiz/dut eta forma jokatu gabea izanik, berez analitikoak izan zitezkeela zioen. Agian, tirabira honetaz ohartaraztea izan zen Peircek euskaldunengan “biziki jeloskorrak izatearena erbesteko

eraginen aurrean” (*Logic* II 258) berezko ezaugarri bat ikustarazi zuena<sup>22</sup>.

Garaiko testuingurua kontutan izanik, deigarriagoa da Peircek ez duela uste aditz bakarra dagoenik Abbadiek, Chaok edo Azkuek uste izan zuten bezela, Peircek lehenik *bi edo hiru* aditz besterik ez zeudela (*CP* 2.328, 1903) eta geroago *ustez, hiru bakarrik* adierazi zuen eskuizkribu batean (*EI* 852, 1911). Beraz, gehien bat Darrigolekin bat egiten du, honek euskarari bi aditz zeudela defendatu zuen: *n(a)iz* eta *dut*, nahiz aditz bakar bilakatu zitezkeen. Honetarako Peircek bezalaxe, adizki jokatuabeak izentzat eta trinkoak analitikoztat hartu beharko ditu<sup>23</sup>.

Honela, izan zitezkeen, Derrigolek bezalaxe, Peircek aipaturiko bi edo hiru aditz horiek bi laguntzaileak izatea: *izan* eta *ukan/eduki* (\*edun). Bestalde, Peirceren bi edo hiru izatearen lehen zalantza, ingeleraz bi ahots direlako izan zitezkeen, *to be* eta *to have* alegia; baino gazteleraz hiru, *ser –existir-, haber, tener*; eta euskaraz bi edo hiru, *izan* eta *ukan/eduki*. Nolabait, *izan* eta *ukan* aditzak beraien berezko aditz-jokoa izateaz gain, gainerakoei izaera eman diezaiekete; ezinbestekoak ez zirela kontsideratu zitezkeen, trinko gutxi batzuk alde batera utziz, gainerakoak ezin baitaitezke izan laguntzailerik gabe. Baina, honetaz gain, laguntzaileetan euskara munduko hizkuntza ergatibo-absolutibo bakarrenetarikoa dela antzematen da; hau da, esaldi iragangaitzen subjektua eta iragankorren objektua kasu absolutiboarekin markatzen dela, eta iragankorren subjektua ordea, ergatiboarekin. Horrela, Peircek euskara indoeuropear hizkuntzez bereiztearen arrazioen artean, bestek beste, *ukan* aditzaren subjektu ergatiboa egon zitezkeen.

---

<sup>22</sup> Cf. GÓMEZ, Ricardo. “XIX. mendeko euskal gamatikagintzari buruzko ikerketak”, *ob. cit.*, 266-267 or.

<sup>23</sup> *Ibid.*, 75-109 or.